



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Igandea
2008-02-10**

VIURTEA 1.359.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Bigarren postua Riañorentzat Bertsolari Txapelketan

LEITZA Lehen kanporaketan 232 puntu lortu zituen Juan Mari Lopezen atzetik 4

Hainbat ekintza «Garzonen autoa salatzeko»

TOLOSALDEA EAren jarduna etetea salatu dute; gaurko manifestaziorako deia luzatu dute 5



Ibarraldeko zazpi gazte kartzelara joateko arriskuan

IBARRALDEA Audientzia Nazionalak ezarri dien isun ekonomikoa ez ordaintzeagatik 5

Goian, momotxorroak baserrietara bidean; behean gosari legea egiten, Pake Tokin. N. URBIZU

INAUTERI USAINA BETE-BETEAN MOMOTXORROEKIN

ARESO Gosariaren ondoren, herriko gazteak eskean atera ziren, baserrietara; gaur izango dute festarako azken aukera 4

POXPOLIN
dekorazioa eta enmarkazioa

Berrikuntzak direla eta, orain Gernikako Arbola, 1ean gaude
BEHERAPEN BEREZIAK

poxpolin@poxpolin.com • www.poxpolin.com
San Frantzisko, 21 • 20400 TOLOSA • 943 655 355

G Gutunak**Independentzia aurrera
Euskal Herria kalera!**

Espainiako gobernuak, kasu honetan PSOEren aginduetara, ezker abertzalea ahulduz Independentziari ateak ixteko helburuarekin martxan jarritako ildo errepresiboan beste urrats bat eman du.

Oraingoan, Gasteizko parlamentuan ezkeriar eta abertzaleon ahotsa den EHAK eta martxoan burutuko diren espainiar hauteskundeetan Euskal herriaren Independentziaren aldeko oihua izango den EAE / ANV izan dira eraso honen jomuga. Eraso isolatu bat izatetik urrun, Independentismoarekin amaitzea helburu duen eraso estruktural baten baitan kokatu behar da, Euskal herriaren aurkako eraso.

Negoiazio prozesuan PSOE eta PNVren asmoa ez zen gatazka konpontzea eta hori ikusi dugu. Urteetan pairatzen dugun gatazka erdigunean dauden bi korapiloei, lurraldetasuna eta autodeterminazioari muzin egin eta ezker abertzalearen errendizioa bilatuz beste iruzur berri bat buru-

zteaz zuten helburu. Ezker abertzaleak asmo horien aurrean marra gorria ipini eta gatazka politikoa gainditzeko baliagarria den "marko demokratikorako proposamena" mahai gainean ipini zuenean PSOE eta PNV mahaitik altxa ziren.

Orduan negoziazio mahaian ezker abertzalearekin burutu nahi zuten iruzurra orain ezker abertzalerik gabe eraman nahi dute aurrera. Finean, azaleko aldatetarako eginez mamian aldatetarik ez dakarren autonomi estatutu berri bat sinatu nahi dute. Horrela, Espainiari lotuak jarraitzearen truke PNV eta NABAik espainiatik datorzkien txanponak kudeatzen jarraituko dute.

Egungo estatus politikoa mantenduko duen estatutu berri bat sinatzeak gatazkaren, eta beraz torturaren, ilegalizazioen, errepresioaren, dispertsioaren, eta abarren luzamendua ekarriko duenaren jakitun dira PNV eta NABAI. Hala ere, bere "mitxelinak" gizentzea ahalbideratuko dienez Euskal herriari beste iruzur berri bat egiteko prest daude.

PSOE, PNV eta NABAik badaukite ezker abertzalea ez dela iruzur berri honen aurrean isilik eta geldirik geldituko. Badakite ere ezker abertzale indartsu bat, Euskal herriaren babesarekin, iruzur hau neutralizatze gaitza dela. Horregatik kolpatzen gaituzte behin eta berriro, ezker abertzalea ahuldu nahian beraien bitarteko guztiak erabiltzen ari dira; buruzagi politikoak atxilotuz, torturaren bidez herria izutuz, jazarpen polizia-aren bidez... eta kasu honetan EHAK eta EAE-ANVren suspentsioarekin.

Baina oker dabilta. Oker dabilta Euskal herria erasotuz herri honen askatasun nahia desagertaraziko eta errepresioaren bidez Ezker abertzalearen norabide politikoa aldatuko dutela uste badute. Eraso guztien aurrean tinko erantzun eta Euskal herriaren eskubideen alde lanean jarraitzeko hautua egin baitu bere sorrera ezker Ezker abertzaleak.

Eraso honen aurrean kalera irten eta oztupo guztien aurrean tinko erantzun eta Euskal herriaren eskubideen aldeko oihua inoiz bai-

no ozenago zabalduko dugu Euskal Herri osora. Independentzia baita Euskal Herriak bizirik irauteko duen aukera bakarra. Herri-tarron indarrarekin lortuko dugu, Euskal Herriaren eskubideen alde borrokatuz Independentziari bidea irekitzea.

Ezker abertzaleak urte luzeetako borrokaren ondorioz Euskal herria aldateta politikoa atarira ekarri du eta ez du onartuko inolako sasi irtenbiderik.

Badakigu ez digutela ezer oparitu. Denok gara beharrezko Euskal Herriari bizi ditugun une garrantzitsu hauetan. Honen jakitun izanda, ez dira geldirik eta isilik egoteko garaiak. Borrokarako garaiak dira. Euskal Herria kalera atera, Nahikoa da! oihukatu eta Euskal Herri aske baten alde bakoitzak bere lekutik ahal duen hori egiteko garaia da. Borrokarak ekarri gaitu aldateta politikorako unera eta Borrokarak soilik eramango gaitu askatasunera.

Euskal Herria kalera!

Euskal Herriak Independentzia!

Tolosaldeko ezker abertzalea.

E Eztabaida

info

Zein da aurtengo Tolosako Inauterietan ikusi duzun mozorrorik originalena, erakargarriena, politena?

■ «Nik palomitz betetako bol bat ikusi nuen eta oso ona iruditu zitzaidan ideia. Espumadera ere bazihoan beraiekin, eta pelukan benetako palomitzak itsatsita. Originala eta parregarria!».

■ «Egia esan, urtetik urtera gero eta zailagoa da originala izatea, ezta? Hala ere, gustatu zitzaizkidan bat baino gehiago: Los tolosanis ikusi nituen eta oso onak iruditu zitzaizkidan, burua behar da hori okurrizteko. Eta pazientzia kontainera baten barruan egoteko. Langosta koadrila bat ere ikusi nuen, bere sukaldari eta arrantzale eta guzti. Oso politak!!».

■ «Egia da zaila dela orijinala izatea, gainera jende gehienek, erraz bidea hartuz erosi egiten dute mozorroa eta ondorioz, jende mordoak ikusten dugu berdin jantzita. Dena den, aurtengoan karroza eta konpartsa orijinal gutxi ikusi ditut, ez dut gogoratzen bereziki arreta deitu didan ezer».

A Asteko irudia**Eguraldiak lagunduriko Inauteriak Tolosan**

JAIK ■ Aurtengoan agian tolosarron nahi zutena baino pittin bat lehenago baina pasa den astean heldu ziren Inauteriak Tolosara. Beti bezala, kaleak jendez bete ziren eromenaren festari behar bezalako harrera egiteko. Eguraldia izaten da tolosarren esku ez dagoen ezaugarri bakarrenetarikoa eta aurtengoan portatu egin dela esan daiteke, eguzkiaren presen-

tzia nabarmena izan baita ia-ia Inauteri guztietan, une batzuetan salbu. Urtero bezala, hamar bat emango diegu konpartsei, karrozei, eta oro har, festa posible egin duten tolosar eta kanpotarrei. Hausterre Eguna igaro ondoren esan ohi den bezala... Jadanik gutxiago geratzen da datorren urteko Inauterietarako. ■

Minutu erdiko 10 ideia euskal kulturaren kontsumoaz



» Iritzia

Kike Amonarriz
Telebista aurkezlea

Oharra: Ohar hauek ez dute inongo dekalogorik osatzen. Martin Ugalde Foroak antolatutiko "Kontsumitzen al da euskarazko kultur produkzioa?" mahai-ingurua zela eta, eztabaidaren sarrera gisa, bost minutuko denbora-mugarekin ahoz irakurtzeko prestatuturiko oharra dira. Berauek argitaratzeko inolako asmorik ez nuen, baina eskatu dizkidatenez, bere horretan bidaltzen ditut, inolako aldaketarik gabe.

1. Euskarazko kultur produktuak kontsumitzeko, euskaraz jakitea komeni da, baina ez danahikoa:

- Euskarazko Kultur produktuak kontsumitzera iristeko:

* Aurrena euskaraz jakin behar da. Salbuespena, guraso erdaldun eta atzerriar euskaltzaleak.

* Gainera, euskaldun horiek euskal mundura hurbildu behar dira.

* Orduan has daitezke euskarazko kultur produktuak kontsumitzen.

- Izan ere, euskarazko kultur kontsumoaren bilakaera, hiz-

kuntz normalizazio prozesuaren bilakaeraren araberakoa izango da, eta alderantziz.

2. Euskarazko kultur kontsumoaren hedapena eta garapena 3 ardatzen inguruan burutubehar-ko da: derrigorrezkotasuna, eskuragarritasuna eta erakargarritasuna.

- Derrigorrezkotasuna: Euskarazko kultur produkzioak lege-babesa behar du. Euskararen presentzia, eskaintza eta erabilera bermatu egin behar dira; baita kultur alorrean ere.

- Eskuragarritasuna: Lege-babesak eta derrigorrezkotasunak, ordea, mugak dituzte eta izan behar dituzte. Horregatik, hil alabizikoaz inguruan, euskarazko DVDak, aldizkariak, liburua, jokoak, etab. eskuragarri izan daitezke lortzea; merkatuak erdarazkoen edo ingelesezkoen eskuragarritasuna bermatzen baitu.

- Erakargarritasuna: Gainera, produktu horiek erabiliak, kontsumituak edo/eta erosiak izango badira, gustuak, erabilgarriak edo interesgarriak izan beharko dute.

3. Merkatua zabaldu beharra dago, horretarako produktu egokiak ekoiztu.

- Nabarra aldizkarian esan nuen: "Abangoardiako produktuk behar baditugu ere, alegia, iparramarkatuko duten liburua edo filmak... bidez ere jendeak kontsumituko dituen produktuak behar ditugu: ikusle, irakurle eta entzule berriak lortu behar ditugu.

- Hitz horiei horrela erantzun

die Patxi Zubizarretak Argian: *Irudipena dut ez dugula publiko-behar bezainbeste aintzat hartzen, eta nago sortzeko orduan horri ere kontu gehiago egin behar geniokeela. Oso iritzi errealista da Amonarrizena, -eskerrik asko-, pragmatikoegia agian hainzahar kituta dagoen sortzaile jendearentzat, baina hitzok inondik ere koitoarekin zerkusi handiagooa dute masturbazioarekin baino eta zer pentsa ematen dute."*

4. Euskal Herriko eta euskaldunen kultur jorei buruzko datuak behar ditugu.

- Kontsumo-jorak asko ari dira aldatzen, eta proiektu berriei elikete eta ditugunak sendotzeko, gure merkatua -erreala eta potentziala- ondo ezagutu behar ditugu.

- Marketing hausnarketa eta merkatu-ikerketak ezinbestekoak dira. Prozesu zientifikoak erabili behar ditugu, jendeari zerk eragiten dion ilusioa eta zer zaion interesgarri jakin ahal izateko.

5. Hizkuntza bera, oztopo eta uxatzailea da askorentzat.

- Euskarak edo euskal eskaintzak berak erretxakoz sortzen du euskaldun askorengan: arrazoi linguistikoengatik batzuetan, ideologikoengatik besteetan.

- Euskarazko produktu asko astunak omen dira, baina askorentzat astuna, ez al da euskara bera? "Hizkuntza kalitatea"ri buruzko txostenean jorratu genuen gai hau. Zuzentasun parametroen aldean egokitasuna eta komunika-

zioa lehenetsi beharko genituzke gure eskaintzan.

- Euskararen eskaintza ideologikoa ere (hitzaren zentzurik zabalean) zabaltea lortu beharko litzateke.

6. Euskarazko kultur produktu gehienak ez dira existitzen biztanleriaren gehiengoarentzat.

- Euskarazko produktu gehienak "ikusezinak" dira erdal medio egiten edo, "bitsikeria folkloriko" edo gertaera marjinal gisa tratatzen dira askotan. ETB1 non eta nola aipatzen den jarraitzea oso esanguratsua da. Salbuespenak salbuespen, euskal mundutikurrungi sumatzen ditugu erdaraz ari diren hedabide gehienak, ETB2 barne.

7. Internet euskarazko edukiz elikatzea estrategikoa da.

- Internet euskarazko edukiz elikatzeo estrategiak indartu behar dira. Gainera, Internet osobitarteko egokia izan daiteke, hedabide estandarren bidez euskaraz zabaldu ezin daitezkeen eduki espezializatu eta minoritarioak zabalteko.

8. Euskarazko kultur kontsumo parametro erregionalistetan gertatzen da, ez parametro nazionaletan.

- Mugak, euskarazko kultur kontsumo ere banatu egiten du. Iparraldean ekoizturiko euskarazko kultur produkzioak (eta baita Nafarroakoak ere, neurri handi batean) nekez gainditzen dute muga.

- Hegoaldeak, arreta berezia eskaini beharko lioke Iparraldeari. Hedabideek (ETBk bereziki) asko dezakete hizkuntza komunitatea trinkotze eta bertako galera etengabea galgatze aldera, iparraldeko profesionalen eta biztanleen presentzia sustatuz eta normalizatuz.

9. Gure zazpi bekatu nagusiak aitortu eta baztertu behar ditugu.

- Alegia: biktimitismoa, ezkortasun kronikoa, baikortasun alferra, akritizismoa, inmovilismoa, subintentionatua, dirigismoa eta inbidia.

10. Joxerra Garziari gaur Ordizian emango duen hitzaldiaren izenburua lapurtuta: "«Zekristo, arraio, demontre egin behar dugu euskararekin? Eta euskal kulturarekin?»"

- Euskal kultura ez dago agenda politikoaren lehenetasunen artean. Ezta euskara bera ere. Azken hamarkada hauetan euskara arriskio larrian egotetik biziraupena segurtatu samartua izatera pasa gara. Baina hori al da euskararentzat nahi duguna?

- Diskurtso teorikoetan, programa politikoetan eta deklarazio publikoetan entzuten duguna eta eguneroko ikusten duguna ez dago bat. Baina galdera hor dago, eta batez ere, administrazioak, eta eragile sozio-politiko-ekonomikoek erantzun behar dute: "Zein da herri honetan eta bere kultur-proiektuan euskarak bete behar duen lekua?"

11. Eta esportatu, noski.

Udaberria dirudi neguan

Azoka » Zerkausian gazta berria eta aurtengo lehenengo aurkemeak ikusi ahal izan ziren, eguraldia lagun.

PABLO ALBERDI

Atzoko eguzkiak asko lagundu zuen Tolosako asteroko azokan. Giroa goizeko lehenengo ordu-

erdiaren inguruan, eta bisitariak eguerdira arte izan ziren azokako postu guztiak bisitatzen. Eskaintza ere oso zabal eta ugaria izan zen, berrikuntzabatzuk ere barne zirela.

Berrikuntzak

Gazta berria eta aurtengo lehenengo arkumeak ikusi ziren atzoko azokan, Zerkausian. Hauekin batera ere, udaberriaren eragina

nabaritu ahal izan zuten erosileek.

Azokan zeudenek azaldu zuten, Errezil aldean hasi dira dagoeneko albortxigo batzuk loratzen.

Gure eskualdean, Tolosaldea guztian, mimosak ere loratan omen daude; hori dela eta, dirudienek hemendik hilabete batera babak ere agertuko dira azokako postuetan.

» ATZOKO AZOKA

PREZIOA	Merk.	Gares.
Berdura plaza		
Erromero	4,00	6,00
Xarbota	4,00	6,00

Bertako produktuak		
Frutak		
Errezil sagarra	0,80	8,00
Urra	2,00	3,00
Intxaurra	2,50	4,00

Barazkiak (Kiloa)		
Babarrun zuria	8,00	10,00

Tolosako babarruna	10,00	12,00
Kalabaza	1,50	3,00
Lekaka	3,50	4,50
Tomatea	2,00	4,00

Gaztak		
Gazta berria	19,00	-
Ardi gazta	14,00	18,00

Produktu ekologikoak		
Sagarra	2,00	3,00
Aza	2,500	3,00
Intxaurra	4,00	6,00
Ahuntz gazta	3,00	-
Mermelada	3,00	3,60

Hilberriak

IGNACIO ELOSEGI BELOKI

Atzo hil zen, 90 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.
-Goian bego-

Bere arima zuzendaria; emaztea: Miren Etxabe; seme-alabak: Jose Antonio eta Pili; Karmen eta Jove, Juan, Roman, Lurdes eta Itaki; jaber: anai-arrebak, ezkon anai-arrebak; bilobak, lehengusak eta gainerako ahaidak. Haren animaren alde ototz bat eskatzen dizuet eta arren etor zaitzetezela GAUR, IGANDEA, arratsaldeko ZAZPIETAN, SANTA FE parrokielizan, gorpua bertan dela egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.



ZALDIBA
2008ko otsailaren 10a

Helbidea: Igarzaeta baserria.
Oharrak: gorpua Beasaingo Goierrri Beilatokian egingo da.

MARIA CARMEN FIGUEIRAS VILARIÑO

Atzo hil zen, 64 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.
-Goian bego-

Haren senarra: Ismael Robles; seme-alabak: M^o Carmen eta Joseba Telleria, Elena eta Antonio Sanchez eta Ismael; bilobak: Maddi, Joseba, Mikel eta Ane; anai-arrebak: Hilda, Lola, Jose Manuel; Luis, Ramon eta Antonio; ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusak eta gainerako ahaidak.

Haren animaren alde ototz bat eskatzen dizuet eta arren etor zaitzetezela BIHAR, ASTE-HELENA, arratsaldeko ZAZPIETAN, Ibarako SAN BARTOLOME parrokielizan, egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.



IBARRA
2008ko Otsailaren 10ean

Helbidea: Ibai-Gain 2.2.-a
Oharra: Gorpua Errekaldeko Funeraria Vascogadako Tanatorioan dago asteleheneko 11:15ak arte.

Momotxorroen etorrerarekin Altsasun bilakatu da herria

Areso » Herriko gazteek baserrietan atzoko egun osoan zehar eskean ibiltzeko aurten aukeratu duten mozorroa izan da.

NEREA URBIZU

Aresoarrak goiztiarrak izan ziren atzo; 09:00ak aldera elkartzen hasi ziren Pake Toki elkartearen inguruan egun osoan zehar baserrietara puskatzen ari zireko. 10:30ak aldera abiatu ziren Sastizar baserria aldera, akordeoi eta guzti. Otsaileko egun beroa egokitu zitzaizkien Garizuma ondorengo Inauteri hauetan. 22 bat lagun elkartu ziren Pake Tokin, baina eskerako gehiago ibili ziren. Nonbait, ohatzetik jalkitze-ko arazoak izango zituzten.

Aurten herenegun eskolakoak hippyz jantzi baziren, atzokoak momotxorroz atera ziren kalera; Altsasu zirudien memento batean herriak, sarde eta guzti baitzihoa-

zen. Hala ere, adarrak falta zitzaizkien eta honen ordez, lastozko kapela zuten jarrita, txantxoek erabiltzen dutenaren antzekoa. Pake Tokin ez zeuden guztiak jantzita, hau da, lasai-lasai gosaltzeko ez ziren guztiz prestatu. Egun luzea

Pake Tokin gosalduta trikitixa entzun bitartean eta indarberrituta kalera atera ziren

Gaur ere eskean aterako dira baina herrian: agian momotxorroren bat ikustea erraza izanen da

(edo motza) zuten aurretik; eskean ariko ziren zetozen orduetan, eguna ilundu arte.

Pake Tokin arrautzak, tomateak eta haragia jan zituzten trikitixa doinuak entzun bitartean, eta indarberrituta, kalera atera ziren.

Herritar batzuk azaldu ziren leihora gazteek egiten zutena ikusteko eta akordeoi musika entzuteko. Erraza zen somatzea nondik zebiltzan.

Gaurko indarrak gorde behar

Gaur, atzo gazte goiztiar hauek etxerantolatatu zirenaren arabera, eskean ere ibiliko dira Areson. Nork daki, agian momotxorroren bat oraindik ikustea erraza izanen da...

» EGITARUA

■ **Gaur goizean.** Goizean zehar gosaria egingo dute eta ondoren, eskean aterako dira herrian.

■ **Arratsaldean.** Ipuin kontalari bat izanen da, eta bukatzeko, plazan soinua.



Gosaria Pake Toki elkartearen egin zuten, 20 lagundik gorak. N. URBIZU



Momotxorroek, elkartetik atera ondoren, baserrietarako bidea hartu zuten. N. U.

Diego Riañok bigarren postua eskuratu du

Leitza » Nafarroako Bertsolari Txapelketako lehen kanporaketan 232 puntu lortu zituen Juan Mari Lopezen atzetik.

N. URBIZU

Diego Riañok bigarren egin zuen herenegun gauko saioan, Nafarroako Bertsolari Txapelketan. Herenegun lortutako 232 puntu horiekin aukera handiak dauzka aurrera jarraitzeko, asteburu honetan jokatu diren bi kanporaketetatik bostek aurrera egingo baitute finalurrekoetan sartuz. Aurrera elkarte lepo, eta herriko jende asko. Riañoren esanetan, «ez ge-

nuen herriko horrenbeste jende espero».

Gaineratu duenez, «uste dut akats bat egin nuela, potobat, baina konformatzeko modukoa dasaioa, gustura gelditu nintzen».

Hona hemen Nafarroako Bertsozale Elkarteak Riañori buruz adierazi zuena: «Indartsu eta gogotsu hasi zen Riaño eta maila ona mantendu zuen saio osoan».

Riañok orokorrean «oso polita» izan zela adierazi zuen. «Espero bano jende gehiago zegoen, normalean bertso saioak egiten direnean kanpoko jende gehiago dago bertako bano». Txapelketari dagokionez, berriz, «gai politak izan ziren, bai bakarka eta baita kartzelan ere». Gaiak orokorrean errazak

izan zirela iruditu zaió leitzarrari. Gainera «ni zentratua nengoan, ongi aritu nintzela iruditzen zait».

Juan Mari Lopez irabazle

Juan Mari Lopezek irabazi zuen herenegungo kanporaketa, eta antza, «lasai aritu zen. Beste koska batean dagoela ikusten zaió, patxara batean zegoen, besteak ez bezala». Aurkariak, beraz, «flojo xamar aritu ziren, huts egite batzuk izan ziren. Gazteak dira, baina besteetan ere aritu izan dira».

Juan Mari Lopezek ez zuen ia zoko Txapelketan parte hartu, horrexegatik kanporaketetatik abiatu da aurtengoan. Lopezek bere esperientzia baliatu zuen, eta erregularrena izan zen, finalurrekoetarako txartel zuzena eskuratu zuen.

Atzoko saioko faboritua argi zeukan Riañok: Xabier Legarreta (Arano) eta Xabier Terreros. Atzo gauean erabakiko zen nor dihoan finalurrekoetara. Riañok, itxaropena behintzat, badu.

Riañok gogoan duen gai bat

Binaka, zortziko handian aritu zenean, gustura aritu zen emandako gaiarekin: «Inauteri garaian zen eta baserrietara eskean joaten ginen, baina baserri askotan ateak ez ziz-



Diego Riaño, herenegun Aurrera elkartearen. NAFARROAKO BERTSOZALE ELKARTEA

kiguten irekitzen, jada baserriak hutsik daudelako. Horretan aritu ginen».

Datorren martxoaren lehen beste leitzarra ariko da finalurrekoan: Luze (joan den urtean 7. egin zuen txapelketa honetan). Finalurrekotatik 8 bertsolari sailkatuko dira finalerako, finalurreko bakoitzeko lehena eta gainerako bostak puntuen arabera. Ikusi beharko da, baina bieleitzarrak bertan izateko aukerak hurbilago daude. Finalurreko hau Beran izango da.

Hirugarren postua Aimar Karrirentzat izan zen; gorabehera

batzuk izan arren, «itxura ona eman zuen auriztarrak», Nafarroako bertsozale elkartearen esanetan.

» SAILKAPENA

- **Lehendabizikoa.** Juan Mari Lopez: 248,5 puntu.
- **Bigarrena.** Diego Riaño, 232.
- **Hirugarrena.** Aimar Karrika, 225,5.
- **Laugarrena.** Iñaki Aleman, 214,5.
- **Bosgarrena.** Ekaitz Astiz, 204.
- **Seigarrena.** Iker Iriarte, 193.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Zaintzailea.** Ibarren emakume bat behar da, haur bat zaindu eta etxeko lanak egiteko. 626 47 87 47.

SALGAI

■ **Adosatua.** lurre auzoan adosatua

ederra. Sukaldea, jangela, 2 terraza, lorategia, balkoia, 4 logela, 3 bainugela. Garaje handia eta guztiz hornitua. 609 47 89 88.

BESTELAKOAK

■ **Txakurkumeak.** Txakurkumeak oparitzen ditugu. 618 254 971.



Ibarraldeko zazpi gazteak, hainbat lagunenganduz, babesarekin eskaini zuten prentsaurrekoa, herenegun iluntzean. ASIER IMAZ

Ibarraldeko zazpi gazteak kartzelara joateko arriskuan

Politika » Audientzia Nazionalak ezarritako «xantaia ekonomikoa» ez dutelako onartzen daude egoera honetan.

ESTI EZEIZA

2002an Guardia Zibilak *Jarrai-Haika-Segi* auziaren baitan atxilotu zituen Ibarraldeko zazpi gazteak kartzelara joateko arriskuan daude. Izan ere, hauek ez dute onartu Audientzia Nazionalak ipinitako fiantza. Espainiako epaitegiak hartutako «erabakia salatze» asmoz, herenegun, agerraldia egin zuten zazpi gazteek, eta hauekin batera izan ziren, babesa eskainiz 100 lagun inguru. Gai honekin lotuta, manifestaziora deitu dute hilaren 15erako. Hau Ibarrako plaza-abiaturik da, 20:00etan.

Amnistiaren Aldeko Mugimen-

duak gogor salatu zuen «mutil hauei Audientzia Nazionalak egin nahi dien xantaia ekonomikoa». Aurrez, epaitegi honen aginduz, «atxilotuak, inkomunikatuak, espetxeratuak eta dispersatuak» izan ziren. Gainera, Guardia Zibilaren eskuetan «torturatuak izana» ere salatu zuten. Orain, bost urte beranduago, epaitegi horrek berak «dirutza» eskatzen die kartzelara ez sartzearen truke. Hala, inputatuen ustetan, «hau guztia Espainiak Euskal Herriaren aurka martxan duen gerra estrategiaren ondorio zuzena da».

«2007ko datu errepresiboak»

Herenegun Amnistiaren Aldeko Mugimenduko kideek plazaratutako datuen arabera, «2007an, 490 atxilotuta, 209 espetxeratze, 42 torturasalaketak, 57 zitazio tribunaletara, 123 debeku, 148 zauritu poliziaren 97 kargetan, 2.155 errepede

kontroletik gora, dispersio politikak eraildako senide bat... eman dira». Honekin batera, gaineratu zuten, egun hauetan «EAE-ANV eta EHAKren aurkako sorgin ehi-za, legez kanpo utzi dituztelarik».

AAMkoen ustetan, datu hauek egoera ez demokratikoa bizi dela. Dena den, honen aurrean, garbi utzi zuten, «errepresioaren adierazpen bortitzenak erabilia ere, Espainiak eta Frantziak ez dutelako lortuko euskal independentismoa geratzea».

«Eraso» hauen aurrean, azpimarratu zuten ere, «herritarrak direla erantzun behar dutenak», eta beraie dagokiela «errepresioari era antolatuan erantzutea». Hala, datozen asteetan, «Euskal Herriak pairatzen duen errepresioaren aurrean gauzatu diren erantzun ekimenetan parte hartzea deitzen dituzte herritarrak».

Garzonen «autoa salatze» ekintzak burutu dituzte

Politika » Gaur Bilbon egingo den manifestaziora joateko deia zabandu dute; eta «herritarrei erantzuteko» eskatu diete.

» ASTELEHENEKOAK

■ **Ibarra.** 20:30ean, ilegalizazioaren inguruko batzar informatiboa izango da.

■ **Amezketeta.** 20:30ean, ilegalizazioaren inguruko batzar informatiboa izango da balioaitzeko gelan.

E. EZEIZA

EHAK eta EAE-ANVren suspentsioen inguruko «azken erabakia salatze» asmoz, hainbat ekitaldi burutu dituzte azken bi egunetan eskualdean. Bestalde, Garzonen erabakia salatze gaur, Bilbon burutuko den manifestaziora joateko deia luzatu dute. Honetarako, autobusak antolatuta dituzte. Bestalde, herri hauetako batzuetan mobilizazio gehiago egingo dituzte datozen egunetan.

Burututako ekintzak

Iruran, atzo eguerdian bide mozketak egin zuten, *Independentzia aurrera eta Euskal Herria kalera* zioten pankartak zintzilik zituzte-late bidez moztu zuten errepede. Bide mozketak honekin «EHAK eta EAE-ANVren etenaldia» salatu nahi izan zuten. «Eraso» hau ez dela isolatua azaldu zuten, PSOE-k, EAJ eta Na Bairen laguntzarekin independentziari ateak ixteko eta ezker abertzalea ahultzeko martxan duen ildo errepresiboaren beste urrats bat baizik». Honen aurrean, ez direla «kilkiduko» eta «erasoen gainetik lanean eta borrokan jarraituko» dutela azaldu dute, «Euskal Herria bere eskubideen jabe egin arte».

Adunan berriz, alde batetik, etxeetako balkoietan EAE-ANVren alde *GUK independentzia* ipintzen duen kartelak jarri zituzten. Bestalde, 20:00etan elkarre-

ratzea egin zuten udaletxe aurrean *Independentzia aurrera. Euskal Herria aurrera!* lelopean. Jarraian herri batzarra egin zuten Kultur aretoan egungo egoeraz mintzatzeko eta aurrera begira egin beharreko erabakitzeke.

Bestetik, Adunan bertan, «Garzon epaileak Gobernuaren aginduz mugimendu independentistaren aurka egindako azken erasori erantzuteko» bide mozketak egin zuten herenegun gauetan, suzko barrakada baten bitartez.

Tolosa eta Ibarra, herenegun, *Jarrai-Haika-Segi auzian* inpagatutako zazpi gazteek emandako prentsaurrekoaren ondoren, kotoxe karabana egin zuten bi herrietatik zehar. Hauek ere, gaur Bilbora egiteko deia luzatu zuten.

Anoetan ere manifestazioa egin zuten herenegun gauetan, *Independentzia aurrera, Euskal Herria kalera* lelopean. Azkenik, Oresan ere zenbait ekintza burutu zituzten. Alde batetik, batzarra egin zuten, eta ondoren, elkarretaratzea.

Gaur Bilbora joateko autobusak

Gaur Bilbon egingo den manifestaziora joateko autobusak antolatu dituzte eskualdeko zenbait herrietatik. Tolotik (San Frantzisko elizeetako balkoietan EAE-ANVren alde *GUK independentzia* ipintzen duen kartelak jarri zituzten. Bestalde, 20:00etan elkarre-



Erromatarrak garaile karrozetan

TOLOSA » Lan ederra egin dute aurten ere inauterizlee-ek, karroza eta konpartsak eraikitzeke garaian. Hala, herenegun sarituak izan ziren hauetako batzuk. Udaletxeko Pleno aretoan banatu baitziren karroza eta konpartsa onenaren sariak. Karrozen kasuan, irabaz-

lea *La cagadita de Roma* izan zen. Konpartsen atalean berriz, A taldean, Spencer Tunic izenekoa izan zen irabazlea. B taldean, Marraskilo lasterketa. C taldeari dagokionean, *El hombre bala* izan zen garaile. Azkenik, D taldean, Bakeroek irabazi zuten. E. EZEIZA



Anoetan, herenegun iluntzean manifestazioa egin zuten. HITZA



Atzo Iruran kale mozketak egin zuten, errepede nagusian. HITZA

JOXEMI SAIZAR

Alpino Uzturre mendi elkarateak 50 ditu aurten. Urtean zehar zenbait ekitaldi berezi izango dira eta horren berri izango duzue, baina oraingoa elkarte honen sorrera eta mende erdian izan duen bilakaera jasotzen saiatuko gara.

Oria ibaia 1953an izan zituen uholdeekin lotzen da zuzenean Alpino Uzturreren sorrera. Nola? Bada, uholde haiek eragin zituzten kalteen artean Berazubi stadiumekoak handiak izan ziren eta Tolosa CFk hura berreraikitze proiektu bat auzketu zuen 1956an Igarondo zineman egin zen asanblada batean. Orduan mendi sail indartsua zuen Tolosa CFk eta mendizale ia gehienak proiektuaren aurka agertu ziren asanblada hartan, sortu nahi zuen kirol eskola Falangereen menpekoa izango zela uste zutelako.

Horren ondorioz 100 bazkide baino gehiago Tolosa CFtik botata egin zituzten eta mendi sailean ia inor ez zen gelditu. Kaleratutako mendizale haiek elkarte berri bat sortzeari ekin zioten. Mendiko Federazioak (Vasco-Navarra deitzen zen orduan) elkarte berria justifikatzeko arazoak izan zituen beste erakundeen aurrean, Tolosan beste bost mendi talde bazirelako: Tolosa CF bera, Aralarko Adiskideak, Ski Club Tolosano, San Esteban eta Oargi.

Hasiera Korazonistetan

Esteban Larraioz, Antton Saez Basagoitia, Joxe B. Arrate, Peter Schnabel, Javier Luarizaiardi, Juanito Ugarte eta beste mendizale ezagun asko zeuden elkarte berria sortu nahi zuen taldean eta bere esperientziari eta izenari esker lortu zuten. 300 sinadura baino gehiago lortu zituzten. Sorrera bazzarra 1958ko abenduaren 13an egin zuten eta Juan Mari Goigana aukeratu zuten lehendakari. Materialik gabe, lokalik gabe, beste elkarte baten menpe izatek naturaren inguruko kirolatan zentratutako elkarte berri bat izatera pasatu ziren. Korazonistetan hasi ziren elkartzen, Cordimarianaren lokaletan. Handik urte gutxira, 1962an, gaur egungo egoitzara pasatu ziren, Gudari kalera. Jose Sasieta zen orduan lehendakaria.

Lehen aipatutako gain, Mikel Arrastoa, Periko Agirre Txipia, Kepa Brau, Javier Alkorta, Ignazio Zuriarrain *Koeti*, Miguel Garcia *Pelu*, Jose Luis Zabaleta, Jose Luis Lopetegui, Jose Luis Mendieta... aipatu behar dira, besteak beste. Mendira joateko autobusak, haurrentzako martxak, kanpamentuak, eskalada eta eski ikastaroak, eski probak, hitzaldiak, proiektzioak... antolatzen zituzten.

Lehen aipatutako mendizale batzuez aparte, eskaladan Felix Etxeberria, Iñaki Sagredo, Santago Arrospide, Patxi Berrio, Jesus Mari Oiarbide, Javier Miralles... aritu ziren.

Eskiatzen berriz, David Hernandez, Antonio Lobo, Jose Luis



Orain dela 25 urte, 1983ko otsailaren 15ean Lizarrusti - Baraibar eski zeharkaldia egin zuten 26 kideak. ALPINO UZTURRE

Alpino Uzturre mendi elkarateak 50 ditu aurten; Tolosa CFtik bidali zituzten mendizaleek sortu zuten; sorreratik naturarekin uztartutako kirolak landu ditu, batez ere mendia, eskalada eta iraupen eskia.

Mende erdia mendian



1962an inauguratu zuten Gudari kaleko lokal berria. Aurrean Jose Sasieta elkarteko lehendakaria, Karlos Agirre apaiza eta Enrique Ortiz de Zarate alkatea, zuzendaritzako beste kide batzuekin batera. ALPINO UZTURRE



Alpino Uzturrek Leitzalarrean haurrekin egindako kanpaldia. Garai batean horrelako aktibitateak ere egiten zituzten. ALPINO UZTURRE

Lekuona *Gorri*, Jose Antonio Gorrostidi, Angel Ortiz... izan ziren lehenak.

Onarpen soziala

Kirol alorraz gain, lehen hamarkada hartan beste helburu nagusi bat

lortu zuen Alpino Uzturrek: tolosarren onarpen soziala. Horretan lehen aipatutako lana nabarmendu behar da. Herriko egunkarrietan eta irratiaren egindako propaganda lana ere handia izan zen garai hartan. Eta egoitzan

funtzionatzen zuen tabernak ere gizarteratze hartan asko lagundu zuten.

Harrez gero aktibitateak ez du etenik izan, batzuetan besteetan baino gehiago. Mendi irteera ugari egin dira Euskal Herria osoan zehar eta baita Pirinioetara ere, urte askotan zehar mendi ibilaldiekin egutegi interesgarriak osatuz.

Elkarteko zenbait kidek espedizioak egin izan dituzte Laponian 1974ean (David Hernandez, Jose Luis Lekuona, Mikel Zabala eta Antxon Bandres) eta Groenlandian 1988 (Angel Ortiz, Josu Iztueta, Dina Bilbao, Nekane Urkia eta Txiki Plazas) zehar.

Zortzimilako bat

Iaz Candido Aizpuru bazkide zuzurildarrak 8.000 bat lortu zuten: Gasherbrum II (8.085 m). Elkarteko kide asko aritu dira eta ari dira eskalatzen.

Eski taldeak ere probetan parte hartzen jarraitu du, kide batzuek selekzioetara iritsiz: Antonio Lobo, Angel Ortiz, Garbiñe Alkorta, Joseba Rojo...

Urtebatzuetan mikologiak arrakasta handia izan zuen Tolosan eta Alpino Uzturrek ere parte hartu zuen zenbait lehiaketatan, antolatzaile eta lehiakide gisa.

Gaur egun, Alpino Uzturrek Gudari kaleko egoitzan jarraitzen du, 500 bazkidek gora ditu, Aitor Oiarbide da lehendakaria eta federazio txartelak egiten, mendi irteerak antolatzen, eskaladan eta iraupen eski taldean zentratzen du bere aktibitatea. Beste hainbat urte, gutxienez, bete ditzala.

**HARMARRIA ETA IZENAREN SORRERA ETA GORABEHERAK**

Juan Mari Goigana tolosarra izan zen Alpino Uzturreren lehen lehendakaria. Delineantea lanbidez, berak asmatu zuen elkarte berriaren harmarria. «Tolosako mendia eta elkartari izena ematen ziona jarri nuen atzean, eta aurrean pioleta eta soka, mendirako erabiltzen diren bi tresna. Denborarekin soka ez da ikusten, mantxa bat besterik ez da ikusten», dio Goigana. Metalezko intsignia batzuek ere egin omen zituzten.

Izenak ere gorabehera batzuk izan zituen. «Peter Schnabel austriarrak esan zigun club eta alpino atzerriko hitzak direla», dio. Batzuek diote hiru hizkuntza erabiltzen direla izenaren: ingeleza, gaztelania eta euskara.

Elkarte berriaren estatutuak egiteko garaian ere orduan zegoen Ski Club Tolosanoaren hartu zituen Goigana oinarri gisa. Elkarte berriak izen hori hartzea eta pentsatu zuten, baina ez zen gauzatu. Handik gutxira desagertu egin zen Ski Club Tolosano.

ESKALADAREN HASTAPENAK

Tolosaldean eskaladan eman ziren lehen pausoak Esteban Larraiozek ezagutzen ditu ondo:

«Peter Schnabelek liburu batean irakurri zuen mendizale batzuk Picos de Europa eskalatzaren ibili zirela eta hara joatea proposatu zidan. Jateko haragi xolomo osoa eraman zuen», dio. Bizikletaz joan nahi omen zuten, baina trenez joan ziren bizikleta Santanderren utzita. Makisen garaia zen, gerra ondoren. «Eskalatzeko ikasi behar genuela konturatu ginen, oso pasoa txarrak zeudelako. Gorbeara joan ginen eta Juan San Martin eibartarra eta beste batzuk ikusi genituen eskalatzeko», dio Larraiozek.

Piskanaka hasi ziren ikasten eta urte askotan Mikel Arrastorekin ibili zen eskalatzeko Etxaurin, Irurtunen, Gredosen, Pirinioetan... Jende askori erakutsi zioten eskalatzeko.

Kolpe handia izan zen Patxi Berrio donostiarra (Alpino Uzturre elkarteko bazkidea) eta Ramon Ortiz tolosarra (Oargikoa) Naranco de Bulnesen hil zirenean, 1969an. Aurretik Angel Etxedona bazkidea ere hil zen, 1966an.

Espeleologian ere Esteban Larraioz izan zen aurrenetakoa, Felix Ruiz de Arkauterokin. Oñatiko Arrikruz kobazuloetan ibili ziren eta argazkiak badituzte. Larraiozen izeneko galeria bat dago han.

E Elkarrizketa

JOSEBA ORMAZABAL » Eskiatzailea



ESTIYEZEA

«Jaitsieretan gehiago arriskatu beharko nuke»

Kirola » Frantziako Luz Ardiden estazioan ospatzen den Derby 3000 proban Joseba Ormazabal eskiatzaile tolosarra Euskadiko txapelketa bilakatu zen.

HARRIET BELLOSO

Urtarrilaren 19 eta 20 egunetan, eta Derby 3000 probarekin batera, Euskal Herriko Mendiko Eski Txapelketa jokatu zen. Frantziako Luz Ardiden estazioan Joseba Ormazabal tolosarra bosgarren aldiz bilakatu zen Euskal Herriko txapelketa.

Garaipena espero al zenuen? Zegarren txapelketa izan da zuretzat?

Hasieratik nire helburua txapelketa irabaztea zen, horregatik oso pozik nago emaitzarekin. Bosgarren aldiz irabazi dut Euskal Herriko txapelketa, eta oso harro nago.

Nolakoa izan da txapelketa beste urteekin alderatuta?

Beste urteekin konparatuz aurtengo txapelketa nahiko antzekoa izan dela uste dut. Proba honetan bi lehia egon direla esan daiteke, Euskal Herriko Txapelketa lortzeko eskualdunen artean egon dena, eta Derby 3000 lasterketa irabazteko eskualdunen eta kataluniarren artean egon dena.

Txapelketaren maila ona izan al da?

Azken urteetan pasa den bezala, aurtengo maila oso ona izan da. Gaur egun eskiatzaileek gehiago entrenatzen dute, batez ere kataluniarrek, eta hori dela-eta txapelketen maila asko igo da.

Eguraldia alde izan duzue edo arerio okerrena izan da?

Eguraldia gure aliatua izan da aste-buru honetan. Hala ere, elurraren egoera ez zen oso ona, gehien bat curia egin zuelako txapelketa bezperan. Elurra gogorra zegoen, eta horrek jaitsiera baldintzatu zuen.

Derby 3000 proba irabazteko aukerarik izan al zenuen? edo behintzat etaparen bat?

Ez dut inoiz irabazi proba hau, baina garaipena gertu izan dut batzuetan. Aurten aukerak izan ditut, baina ez da erraza maila haue-tako txapelketa irabaztea, Kataluniako eta Andorrako eskiatzaileak oso onak baitira.

Zer falta zaizu garaipena lortzeko?

Jaitsieretan gehiago arriskatu behar dut. Aurkariak oso onak dira eta azkenaldian maila izugarri hazi da. Kataluniarrek eski estazioak bertan dituzte, baina guk hiru orduko bidaia egin behar dirugu eskiatzeko eta azkenean entrenamendu gutxiago egiten ditugu.

Estazioak ondo ezagutzen al zenuen?

Normalean Jaca (Espainia) aldera joaten naiz entrenatzera, baina estazio hauek ere nahiko ondo ezagutzen nituen.

Zenbat denbora eskaintzen diozu prestaketari?

Irailean hasten naiz entrenamenduekin. Hasieran poliki-poliki hasten naiz, lesiorik ez edukitzeko. Abenduan, lehen elurteekin, benetako entrenamenduak eta aste gogorak hasten dira. Denboraldia urtarilean hasten da eta oso ondo prestatuta egon behar da.

Zer eski estazioetara joaten zara denboraldia prestatzera?

Jaca inguruan dauden estazioetara joaten naiz, batez ere ezagunak diren Formigal, Astun eta Candanchura.

Duela gutxi eskiatzaile eskualdun batek bizitza galdu zuen Astuneko estazioan elurrolde batek harrapatu ondoren.

Tamalez urtero gertatzen den gauza da. Jendeak oso errespetu gutxi dio mendiari eta edozein lekutatik hasten da jaisten. Aitortu beharra daukat behin baino gehiagoetan horrela ibili naizela ere, eta horregatik leku ezegunetatik jaisten hasi baino lehen pistaren egoera egokia dela ziurtatzea gomendatzen dut.

Denboraldia amaitzen denean zer egiten duzu?

Udan mendi lasterketetan parte hartzen dut prestakuntza bezala. Fisikoa mantentzeko bizikletan eta korrika aritzen naiz normalean, baina inongo arriskurik hartu gabe. Abuztua oporretara joateko aprobetxatzen dut.

Nola ikusi zenuen Izaskun Zubizarreta txapelketaren zehar?

Oso indartsu mantendu da proba guztiaren zehar. Euskal Herriko Emakumezkoen Txapelketan bera bakarrik aurkeztu zen, eta hori pena da. Estatu mailan aldiz aeriorik ez duela erakutsi du.

Nola ikusten duzu eskiaren egoera Euskal Herrian?

Azken urteak ez dira oso onak izan eskimunduan, eta batez ere mendi eskian betidanik oso jende gutxi ibili izan da. Euskal Herriko eski federazioak lan ona egiten ari da gazteekin eta talde berrien sorrera bultzatzen ari da. Euskal selekzio bat eratzeko asmoa dago, eta jendea oso gogotsu dago proiektu horrekin.

TXOTX

Urbartarte

Ergoiena auzoa
Tel.: 943 180 119 Ataun

Laia

Arkolla auzoa, 33 (www.laiaerretegia.com)
Tel.: 943 646 309 (info@laiaerretegia.com) Hondarribi

Lindurrenborda

Nabaz auzoa
Tel.: 948 637 212 Lesaka

Ola

Meaka auzoa, 102
Tel.: 943 623 130 Irun

Aduriz

Aranedef bidea, 28. Iturriotz auzoa
Tel.: 943 494 353 Oiartzun

Egi Luze

Zamalbide auzoa
Tel.: 943 523-905 Errenteria

Txopinondo

Sagamotegia bidea, Lan Zelai (txopinondo@wanadoo.fr)
Tel.: 559 546 234 Azkaine

Bordatto

Bordatto etxaldea
Tel.: 559 491 822 Jatsu

Donosti

Zamalbide, 8
Tel.: 943 526 041 Errenteria

Txindurri Iturri

Mendari auzoa (www.txindurri.com - txindurri@txindurri.com)
Tel.: 943 199 389 - 699 684 490 Itziar

Arratzain

Arratzain Zahar baserria (www.agroturismoarratzain.com)
Tel.: 943 366 663 (info@agroturismoarratzain.com) Usurbil

Begiristain

Iturrioz baserria
Tel.: 943 652 837 Ikaztegieta

Isastegi

Aldaba Txiki, 15-A (www.isastegisagardotegia.com)
Tel.: 943 652 964 (isastegi@isastegisagardotegia.com) Tolosa

Sarasola

Bebailara auzoa
Tel.: 943 690 283 Asteasu

Zabala

Garagartza baserria (www.rzabala.com)
Tel.: 943 690 774 (info@rzabala.com) Aduna

Otazu

Otazu baserria
Tel.: 943 670 044 Leaburu

Eguzkitza

Eguzkitza baserria - Usabal auzoa, 35
Tel.: 660 654 317 Tolosa

Erreka

Erreka auzoa
Tel.: 948 510 625 Leitza

Elutxea

Oztaran auzoa, 34 - Elutxeta baserria
Tel.: 943 556 981 Urnieta

Larre Gain

Larre-Gain baserria, Ereñozu auzoa
Tel.: 943 555 846 - 616 287 867 Hernani

Otsua-enea

Osiñaga auzoa
Tel.: 943 556 894 Hernani

Iparragirre

Osiñaga auzoa www.iparragirre.com
Tel.: 943 550 328 Hernani

Rezola

Ipintza baserria - Santio Zaharra - rezolasagardotegia@euskalernia.org
Tel.: 943 556 637 Astigarraga

Oialume Zar

Mikel Arozamena bidea, 16 (autobus geltokitik gertu)
Tel.: 943 552 938 - 943 332 127 Astigarraga

Gartziategi

Gartziategi baserria www.gartziategi.com
Tel.: 943 469 674 Astigarraga

Akelenea

Oialume bidea 57 www.sidreriaakelenea.com
Tel.: 943 333 333 info@sidreriaakelenea.com Astigarraga

Gurutzeta

Oialume bidea 63 (sarrerera Ergoia auzotik)
Tel.: 943 552 242 Astigarraga

